

Topaguneak Hego Euskal Herriko 16 herritan burutuko du laugarren urtez 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoa

BILBO, 21 (EUROPA PRESS) Topagunea Euskara Elkarteek Federazioak 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoaren laugarren edizioa aurkeztu du gaur Bilbon. Irakurketa sustatzeko asmoz sortu den egitasmoa Hego Euskal Herriko 16 herritan gauzatuko da, tokian tokiko euskara elkarteek, udal liburutegien eta liburu dendek elkarlanari esker.

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko. Lehenengo pausua irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, hain zuzen ere. Herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan hartzea eta irakurtzea da lehen pausua.

Bigarren pausuan, liburua irakurritakoan, liburutegira bueltatu, eta fitxa single-single bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun eta abar. Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea emango dio irakurleari, hitzartutako liburu-dendan erabiltzeko. Azken pausua, aurrekoetan bezala, liburua oparitzea da. Liburutegian jasotako txartelarekin, prezioaren %25 ordaindu ahal izango du irakurleak liburu-dendan euskarazko beste edozein liburu erostean, edo %50 Euskara Elkarteak kidea izanez gero.

Egitasmoaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, eta euskaraz irakurtzearen alde atsegina azpimarratu nahi izan du Topaguneak. 'Euskararen erabilera gozagarria sustatu nahi du Topaguneak, irakurtzeak eta oparitzeak dakarten gozamenaren bidez', azaldu dute aurkezpenean. Bide batez, 'oso garrantzitsuak' diren bestelako helburuak ere lortu nahi ditu Topaguneak ekimen honen bidez. Batetik, Euskara Elkarteetako bazkide diren euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea; bestetik, era askotako eragile publiko eta pribatuak elkarlana sustatzea, eta eragile horien guztien arteko harreman sarea euskaraz hedatzea; eta azkenik, ekimen honek ekarpena egin nahi dio euskarazko liburgintzari, liburuaren ekoizpena eta salmenta bultzatuz.

'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoa apirilaren 23an hasiko da, Liburuaren Nazioarteko Egunean. Amaiera, berriz, uztailaren 24an izango du; izan ere, uda izaten da jendeak irakurtzeko denbora gehien duen tarteak, eta ondorioz uda aurreko hilak oso egokiak iruditu zaizkie antolatzaileei liburu trukea sustatzeko.

Esan bezala, Hego Euskal Herriko 16 herritan egongo da martxan kanpaina hau datozen hiru hilabeteetan, tokian tokiko Euskara Elkarteek sustatuta. Araban, Laudion (Basalarrina) egingo da; Bizkaian, Santurtzin (Bai Esan), Durangon (Berbaro), Ermuan (Euskal

Birusa), Basaurin (Euskarabila) eta Zaldibarren (Eixu); Gipuzkoan, Tolosan (Galtzaundi), Deban (Zuhatza), Lazkaoan (Goierriko Euskal Eskola), Andoainean, Asteasun, Amasa-Villabonan (M. Larramendi), Urnietan (Inistorra - M. Larramendi); Nafarroan, Irurtzunen (Aizpea), Lizarran (Garean) eta Etxarri Aranatzan (Udal Liburutegia).